

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ERAKUNDEARTEKO
BATZORDEA**

2021eko ABENDUAREN 9ko OHIKO BILKURAREN AKTA

Bertaratuak:

Jose Antonio Rodríguez jauna, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea eta Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordeko presidentea (birtuala)

Paul Ortega jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria (presentziala).

Ignacio Rodríguez jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz (birtuala)

Ainhoa Campo andrea, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz (presentziala)

Fernando San Martín andrea, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz (birtuala)

Ernesto Sainz jauna, EUDEL ordezkatzuz (presentziala)

Juan Manuel Balerdi, Euskal Fondoa ordezkatzuz (presentziala)

Noemí de la Fuente andrea, idazkari gisa, hitzarekin baina botorik gabe.

Gainera, presidenteak gonbidatuta bertaratu dira:

Miguel Pérez, Bilboko Udala ordezkatzuz (birtuala)

Jon Armentia eta Aitor Gabilondo, Gasteizko Udala ordezkatzuz (birtuala)

Alazne Camiña, eLankidetzako koordinazio teknikoaren arduraduna (presentziala)

Ezin etorria adierazi dutenak:

Monika Hernando andrea, Eusko Jaurlaritza ordezkatzuz.

Itziar Urtasun andrea, EUDEL ordezkatzuz

Kokalekua:

Mistoa: eLankidetzaren egoitza - Zoom¹

Eguna eta ordua: 2021eko abenduaren 9a, 11:30 h

¹ Hasiara batean bilkura presentziala deitua bazegoen ere, egoera meteorologikoa dela-eta modu mistoan egin da azkenean.

2021eko abenduaren 9ko 11:41ean, José Antonio Rodríguez jaunak, Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordeko presidentek, bertaratuei ongi etorria egin die, eta gogora ekarri du, hauteskondeak, pandemia eta beste arrazoi batzuk direla-eta 2018az geroztik bilera formalik egin ez badute ere, denbora-tarte horretan erakundearteko lankidetzan lanean jarraitu dutela. Jarraian, bilerari hasiera eman dio honako gai-zerrenda honi jarraikiz:

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea
2. Erakundearteko ekimenak - ura:
 - lehen fasearen itxiera eta sistematizazioari buruzko informazioa
 - konpromisoak berrestea, bigarren fasearen hasiera formalizatzea eta lehen urteko planifikazioa
 - 2022ko martxoan ekitaldi tematiko bat eta zabalkunde-kanpaina bat egiteari buruzko akordioa
3. Erakundearteko ekimenak - ataria:
 - balorazio orokorra martxan jarri zenez geroztik hiru urte igaro direnean
 - beste udalerrri batzuetara zabaltzeari buruzko erabakia
 - hobekuntzei buruzko informazioa
 - Hegoaren zereginaren balorazioa
4. Erakundearteko ekimenak – Senegal: aurrerapenei buruzko informazioa eta identifikazio-bidaia posiblea
5. (H)ABIAN 2030
 - oinarrizko lerroari buruzko informazioa
 - V. urteurrena ospatzeko proposatutako ekintzen balorazioa
 - eman nahi diogun bultzadaren gaineko hausnarketa
6. Lege berria egiteko prozesua
 - prozesuaren balorazioa
 - hurrengo urratsak
7. PLATAFORMA: 2022rako eta 2023rako programatutako ekimenei buruzko informazioa
8. Euskadiko GGKEen koordinakundea
 - estrategia planifikatzeko prozesuaren balorazioa
 - laguntzen koordinazioa
9. Hainbat testuingurutako egoera politikoari eta Giza Eskubideen egoerari buruzko eztabaida, dirulaguntza ematean nola eragiten duen, eta dirulaguntzen jarraipena eta har litezkeen neurriak.

Gai-zerrendan bildutako gai kopurua ikusirik, bilkura honetan lehentasunezko gaietara heltzea proposatu du, eta otsailean beste bilkura bat programatzea, gai-zerrendan jasotakoei heltzen jarraitzeko.

1. AURREKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA

Inork inolako oharrik egin ez duenez, bertaratuek aho batez onartu dute aurreko bilkuraren akta.

2. ERAKUNDEARTEKO EKIMENAK - URA:

Juan Manuel Balerdi jaunak jakinarazi duenez, irailaren 1ean bigarren faseari hasiera eman zitzaion 30 hilabeterako, FOCARD-APS (Foro Centroamericano y República Dominicana de Agua Potable y Saneamiento) foroaren bidezko eskualde-dimentsio berri bat barne.

Erantsi duenez, osagai horretan zailtasunak nabari dira, herrialde kideen eta Nikaraguaren arteko desadostasunak direla-eta. Jakinarazi duenez, azaroaren 30ean Euskal Fondoak, AyA eta ANDA erakundeek lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten; eta ANDAko egungo presidentek interes handia jarri du ekimenean.

Bertaratutako erakundeek konpromisoa berretsi dute, 2021eko irailetik 2024ko martxora bitarte Euskadiren eta Erdialdeko Amerikaren arteko Ur eta Saneamendu Alorreko Lankidetzarako Erakundearteko Programaren bigarren fasea aurrera eramateko.

URAREN², eLankidetzaren², Arabako Foru Aldundiaren³, Gipuzkoako Foru Aldundiaren⁴, Bilboko Udalaren⁵, Gasteizko Udalaren⁶, Euskal Fondoaren, AMVISAREN⁷ eta CABBen konpromisoak berretsi dira; eta Gipuzkoako Urak erakundeak ere aurrera jarraituko duela espero da.

Bertaratutako erakundeek berretsi dute programaren kudeaketa Euskal Fondoaren esku utzi dutela (erakunde bakoitzak dagokion lankidetzaren hitzarmena sinatu ahalko du erakunde horrekin, modu indibidual edo mankomunatuan).

Juan Manuel Balerdi jaunak erakunde parte-hartzaileei eskatu die, ahal den neurrian, Euskal Fondoak ezarritako egikaritzealdi eta kudeaketa-arauetara molda daitezten, eta, ahal den neurrian ere, diru-kopururik handiena bigarren ekitaldian jar dezaten (2022), hartara programak behar adinako likidezia eduki dezan El Salvadorreko azpiegituraren kronograman alferrikako geldiketak saihesteko.

Ernesto Sainzek jakinarazi duenez, azaroaren 11n egin zen Batzar Nagusian, EUDELEK "Euskal Udalerrien ekarpena Euskadiko 2030 Agendan" izeneko dokumentua aurkeztu zuen, udalak bultzatzeko 15 proiektuen artean. Eta ikusteko dago ekarpen ekonomikoetan nola gauzatuko den.

Oniritzia eman da eLankidetzaren Nafarroako Gobernuak Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiarekin hitz egiten has dadin, Nafarroako Gobernuak programarekin bat egiteko aukerak aztertzearen.

² URAk eta eLankidetzak programarako 450.000 euro ere jartzeko konpromisoa hartu dute. 2021ean 150.000 euro jarri dituzte. Funtz horien zati bat URAk bildutako uraren kanonaren % 5etik datoz.

³ Ainhoa Campok hitz egiteko eta esku hartzeko konpromisoa hartu du, justifikatzeko eta dirua jartzeko prozedurak errazteko modua bilatzearen.

⁴ Fernando San Martín Ingurumen Sailarekin negoziatzen ari da, 2022. eta 2023. urteetan 50.000 eurona jartzeko aukeraren inguruan.

⁵ 50.000 euro urtean, egoera normala bada betiere. Gainera, CABBekin sinatutako hitzarmenak parte-hartze teknikoak bermatzen duela berretsi du.

⁶ Gutxienez 50.000 euro urtean, hiru ekitaldiz (kopurua handi liteke, baldin eta behar adinako aurrerapenaz aurreikusten bada).

⁷ Juan Manuel Balerdi jaunak jakinarazi duenez, AMVISAREN 2021. eta 2022. urteetan 50.000 eurona jartzeko konpromisoa hartu du. Bilkuran hartutako konpromisoari buruzko ziurtagiri bat bidaltzeko ere eskatu du, dirulaguntza aktibatu ahal izateko.

Erabaki da, lehen fasearen amaieran landutako ikus-entzunezko materialetatik abiatuta, komunikazio-kanpaina bat egitea, eta martxoaren 22an maila goreneko ekitaldi instituzional batekin amaitzea, uraren mundu-eguna dela aprobetxatuz.

Juan Manuel Balerdik adierazi du bigarren fasearen barruan komunikazio-partida bat sartu dela aurrekontuan, eta, horren arabera, 2022ko lehen hiruhilekoan bidaia bat egin litekeela Costa Ricara eta El Salvadorrera harreman instituzionalen xedeetarako eta, IKAIKArekin, komunikazio-produktuak egiteko irudiak grabatzen joateko.

3. ERAKUNDEARTEKO EKIMENAK - ATARIA

Erakunde parte-hartzaileek, Hegoak 2020ko kargari buruz egindako txostena aztertu eta positiboki baloratu dute. Eta bat etorri dira COVID-19aren eraginari buruzko aipamen orokor bat egiteko egokitasunean.

Nacho Rodríguezek proposatu du azken bi diapositibetan eranstea funts gehien jasotzen dituzten Euskal Herriko eta tokiko 15 erakundeei emandako dirulaguntzen zenbateko osoa.

Bat etorri dira, halaber, GJHetarako ekarpena 2021eko kargan sartzearen egokitasunean.

Erabaki da 2022tik aurrera atariko urteko kargaren prentsa-oharra irailaren 28an argitaratzea, hots, jakiteko eskubidearen egunean —Nazio Batuek aitortutako ekimen horretan, administrazio publikoen informazioa eskuratzeko eskubidea aldarrikatzen da, herritarren parte-hartzea errazteko eta kontu-ematea bermatzeko funtsezko bide bat den heinean.

Noemí de la Fuentek Hegoari helaraziko dio bilkura honetan adostutakoa, lantalde teknikoaren esparruan egindako ekarpenekin batera.

4. ERAKUNDEARTEKO EKIMENAK – SENEGAL

Paul Ortegak, egindako urratsak ekarri ditu gogora:

- 1) Irailaren 24an: Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordearen eta BC3 eta KCD erakundeen arteko baterako bilera, Senegalekin lurraldez lurralde baterako ekintza-ildo bat aurrera eramateko interesa neurtzeko.
- 2) Urriaren 22an: St. Louis-eko alkateordearen bisita.
- 3) Martxoan, urtarrilaren 23ko udal-hauteskundearen ondoren, baterako bidaia bat egiteko proposamena.

Aitor Gabilondok uste du, identifikazio-bidaia eraginkorra izan dadin programaren edukien definizioan aurrera egin behar dela, Euskadiren interesak St. Louis-eko udalaren interesekin gurutzatuz. Bidaiaren aurretik bizpahiru bilera egitea erabaki da, lan-eremuak identifikatzeko. Lehen bilera urtarrilaren 13an egingo da, 10:00etan, eta erakundeartekoa izango da (KCD eta BC3 gabe). Nacho Rodríguezek adierazi du hori gida-planean lehenetsitako gure lan-eremuetako bat dela, eta baliabideak jarriko dituztela.

5. (H)ABIAN 2030

Noemí de la Fuentek gogora ekarri duenez, martxoaren 3an (H)ABIAN estrategia aurkeztu zeneko bosgarren urteurrena beteko da, eta Europako beste eskualde batzuekin esperientziak elkartrukatzeko jardunaldi batzuk egitea proposatu du, PLATFORMAren esparruan. Ekitaldiarekin aurrera jarraitzea erabaki da. Ainhoa Campok gogora ekarri du martxoaren 3an Gasteizen memorialela egingo dela, eta beste egun batera aldatzea proposatu du.

Ondoren eztabaida bat hasi da hainbat gairen inguruan: oinarri-lerrorako hautatutako adierazleen erabilgarritasuna, haien konplexutasuna, erakundeen premietara eta lortu nahi diren hezkuntza-helburuetara nola egokitu, horien bilketak eskatzen duen esfortzua... Erakunde batzuen artean ezinegona atzeman da, eta hori ez dator bat adierazleak egiteko prozesuan parte hartu duten pertsona gehienek adierazi dutenarekin. Noemí de la Fuentek jakinarazi du lantalde bat lanean ari dela adierazleak sinplifikatzeko —estrategiarekin identifikatuko gaituzten 12/15 adierazle edukitzeko— eta horien neurketa errazteko gidak egiteko.

Fernando San Martínek gogorarazi du solaskide garrantzitsu bat falta dela: euskal hezkuntza-sistema (estrategia egiteko prozesuan hainbat hezkuntza-eragilek parte hartu bazuten ere, orain arte jesuiten ikastetxe-sareak baino ez du estrategiarekin bat egin).

Juan Manuel Balerdik adierazi duenez, atxikitako erakunde guztiek gehiago inplikatu beharko lukete guztion arteko eraikuntza bat izan dadin, zama guztia eragile gutxi batzuen bizkar utzi gabe.

6. LEGE BERRIA EGITEKO PROZESUA

Paul Ortegak erakundearteko prozesua ekarri du gogora, eta jakinarazi du azaroan jada argitaratu zela legearen xedeari buruzko alde zuzeneko kontsulta publikorako eta hasiera emateko agindua. Eta onarpen-agindua eman ondoren (Saileko zerbitzu juridikoak txostena eman eta gero) emango diren urratsen berri eman du jarraian.

Noemí de la Fuentek gogora ekarri du, behin onarpen-agindua prest dagoenean, EUDELeke eta aldundietako organo juridikoekin bilerak egitea komeniko litzatekeela, lege-aurreproiektua, elaborazio-prozesua eta erakundearteko akordioak aurkezteko, hartara, legea irakurri eta aztertu baino lehen, aurrekarietara dagokienez jakinaren gainean egoteko.

7. PLATFORMA

Noemí de la Fuentek PLATFORMAren ekimena labur-labur aurkeztu du, eta adierazi duenez, hainbat herrialdetan Europar Batasuneko ordezkartzeak elkarriketa estrategikoak bultzatzen ari da Europako lankidetzaren deszentralizatuaren zeregina balioan jartzeko, EE funtsak eta dirulaguntzen emakida ordezkartzei transferitzen ari zaizkion testuinguru batean.

8. EUSKADIKO GGKE-EN KOORDINAKUNDEA

Planifikazio estrategikoa egiteko prozesuaren esparruan erakunde bakoitza Euskadiko GGKEen koordinakundearekin egiten ari den alde biko bileren gaineko iritziak partekatu dira.

Bilboko Udalak jakinarazi duenez, GGKEen esaerari erantzunez Koordinakundearentzako aurrekontuari zuzenketa bat egin zaio, 2022an 7.000 eurora igotzeko.

Erabaki da Euskadiko GGKEen koordinakundeari berrestea lan-bilera bat egiteko interesa haren planifikazio estrategikoa egiteko prozesuaren bigarren fasean eta azken dokumentua egin aurretik, bilera horretan EAEn haren egitura eta jarduerak finantzatzen dituzten lankidetzak-erakunde guztiek batera parte hartuko dutelarik.

Horrez gain, 2022ko plangintzari begira erakunde guztiei eskatu zaie aurrekontu bat eta baterako planifikazio bakar bat aurkezteko, erakunde bakoitzarekin hartutako konpromisoak jasota.

Noemí de la Fuentek, Batzordeko idazkaria izaki, bi mezu horiek Koordinakundeari helaraziko dizkio.

9. EGOERA POLITIKOA ETA GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO EGOERA, HAINBAT TESTUINGURUTAN

Fernando San Martín kezkatuta azaldu da Nikaraguako eta Erdialdeko Amerikako gainerako herrialdeen egoera dela-eta, betidanik euskal lankidetzaren aliatuak izan direla kontuan hartuta.

Paul Ortegak jakinarazi duenez, autonomia-erkidegoen topaketan Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritzari komunikazio bat igorri zitzaion, lurralde barneko batzordearen hurrengo bilkurarako deialdian gai hori gai-zerrendan sar dezaten.

Alazne Camiñak administrazio-zailtasunak daudela eman du aditzera. El Salvador da 2021eko proiektu-deialditik funts gehien jaso dituen herrialdea. Eta bertaratuak animatu ditu bidean aurkitzen ditugun konponbideak elkartruka ditzagun, nahiz eta behin-behineko konponbideak baino ez izan.

Otsailaren 4ko hurrengo bilerara etortzeko deia egin digu jarraian, aztertzeke geratu diren gaietan aurrera egiten jarraitzeko, eta 13:58an bilera amaitu da.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENAREN LANKIDETZARAKO
ERAKUNDEARTEKO BATZORDEKO
IDAZKARIA.**

JOSÉ ANTONIO RODRÍGUEZ

**GARAPENAREN LANKIDETZARAKO
ERAKUNDEARTEKO BATZORDEKO
PRESIDENTEA.**